


Euskal AEko BPGk urte arteko %3,3ko hazkundera 2016ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,8ko hazkundera

2016ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %3,3 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera; datua aurreko hiruhileko hazkundera baino bi hamarren hobe da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,8ko hazkundera. Urte artekoa hamarren bat handiagoa da apirilaren 27ko Aurrerapen datuen aldean; hiruhilekoa lehengoan.

Euskal ekonomiaren hazkundera, urte artean, Espainiakoa baino hamarren bat txikiagoa da eta Euroeremua-19koa (%+1,5) baino puntu bat eta zortzi hamarren handiagoa.

BPGren urte arteko aldakuntza-tasa. (%)
Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskaintzaren ikuspegitik, BPGren urte arteko hazkundera jardura-sektore guztien positibotasunari zor zaio, eraikuntza salbuespen delarik.

Lehen sektorearen hazkunde-erritmoa %9,3, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero apalxeago. Industria goraka, batez ere 2015eko bigarren hiruhilekotik; oraingoan urte artekoa handiagoa da aurreko hiruhilekoan baino. Eraikuntzan beherakada leuntzen. Zerbitzuetan, 2014ko azken hiruhilekotik jarduera positiboa eta egonkorra. Bereziki nabarmena da esandakoa Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan, eta Gainerako Zerbitzuetan, non dauden besteren artean, jarduera profesionalak, finantzetakoak eta aseguruak. Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuetan hazkundera apalagoa da.

Industria, lehen hiruhilekoan, %4,8 gehitu da urte artean, laugarren hiruhilekoan baino bost hamarren gehiago. %0,1eko hazkundera hiruhileko artean lehen honetan.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	-10,0	7,4	5,5	-3,0	7,3	22,3	9,3
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,5	2,7	0,3	3,1	3,1	4,3	4,8
Manufaktura-industria	2,3	2,8	0,4	3,2	3,3	4,5	4,7
ERAIKUNTZA	-3,2	0,0	0,6	0,2	-0,2	-0,6	-0,3
ZERBITZUAK	1,5	3,0	3,0	2,9	3,2	2,8	3,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2,0	3,1	3,1	2,9	3,3	3,0	3,1
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,1	2,3	2,6	2,3	2,2	2,1	2,2
Gainerako zerbitzuak	0,9	3,2	3,0	3,2	3,7	3,1	3,4
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	1,1	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1	3,3
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	3,8	3,0	2,7	2,9	3,3	3,1	3,2
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	1,4	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1	3,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak
 Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntzan %-0,3, 2015eko lehen hiruhilekoaren aldean; aurreko hiruhilekoaren aldean, %-2,5.

Zerbitzuetan urte arteko %3,0ko eta hiruhileko arteko %1,3ko hazkunderak.

Zerbitzuak %3,0 gehitu dira urte artean; azpisektore guztiak positiboan baina indar ezberdinez: **Gainerako zerbitzuak** (besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) %3,4; **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %3,1; **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,2.

Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak dira hiruhileko arteko gehien hazi direnak, %2,4, baina hazkundera dugu azpisektore guztietan. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,7 gehitu da eta %1,1 **Gainerako zerbitzuak**.

Sektore-agregatuak **Balio Erantsiaren** urte arteko positiboa ekarri dute, %3,3; 2015ean zehar izandako positibotasunari eusten zaio. Datua bi hamarren hobe da aurreko hiruhileko urte artekoa baino. Hiruhilekoen artean eta hamargarren hiruhilekoz jarraian hazkundera, %0,9.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015				2016
	I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA, ARRANTZA	21,7	-4,6	5,1	0,2	8,8
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-0,4	3,1	0,9	0,7	0,1
Manufaktura-industria	1,3	1,8	1,0	0,3	1,5
ERAIKUNTZA	-2,9	-2,8	0,6	4,6	-2,5
ZERBITZUAK	1,1	0,6	0,7	0,3	1,3
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,6	0,1	0,7	1,6	0,7
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,4	1,3	0,3	-1,9	2,4
Gainerako zerbitzuak	0,8	0,7	1,0	0,5	1,1
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,7	1,0	0,8	0,6	0,9
PRODUKTUEN GAIKOKO ZERGA GARBIAK	0,4	1,0	0,9	0,9	0,4
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	1,0	0,8	0,7	0,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Urte artean %3,1eko hazkundea dugu **Barne Eskarian**; aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren hobeto. Positibotasun hau bi osagarrietan dugu, Azken Kontsumoko Gastuan eta Kapital Eraketa Gordinean. Esportazioak gehiago gehitu dira inportazioak baino; kanpo-saldoaren ekarpen positiboa.

Familia-etxeetako Azken kontsumoaren Gastuak (Kontsumo pribatuak) azkartu egin du hazkunde-eritmoa, %3,3, urte artean, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago; hiruhileko tasan, %0,5.

Kontsumo publikoa (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua) %2,4 gehitu da urte artean (sei hamarren gehiago aurreko hiruhilekoan baino), %7,0 hiruhileko artean.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	1,5	2,8	2,3	2,9	3,3	2,8	3,1
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	1,6	3,1	2,9	3,3	3,3	3,1	3,3
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	1,1	1,6	0,2	1,1	3,2	1,8	2,4
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-0,6	2,0	1,3	1,8	2,2	2,6	3,4
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	3,0	6,5	3,8	5,9	7,4	8,8	10,7
Gainerako kapital-eraketa gordina	-2,1	0,0	0,3	0,0	-0,1	-0,1	0,2
BARNE-ESKARIA	1,1	2,6	2,1	2,7	3,1	2,8	3,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	3,6	-0,2	-0,2	0,7	-3,2	2,1	4,2
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	3,0	-0,2	-0,3	0,7	-2,8	1,6	3,9
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	1,4	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1	3,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetakoa) %3,1 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean %1,8ko hazkundera.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %3,4 gehitu da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino zortzi hamarren gehiago. Hiruhileko tasan, %-0,2. Berriz ere inbertsioaren jokaera indar ezberdindun bi bilakaeratan oinarritzen da. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %10,7 gehitu da urte artean eta %2,4 hiruhilekoan. Kapital Eraketa Gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- tasa positiboa du urte artean (%0,2), eta %-1,4 hiruhileko artean.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2015				2016
	I	II	III	IV	I
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	1,6	0,5	0,6	0,1	1,8
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	0,4	1,7	0,6	0,4	0,5
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	6,4	-3,9	0,7	-1,1	7,0
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-1,0	0,8	1,0	1,7	-0,2
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	0,6	4,1	3,9	-0,1	2,4
Gainerako kapital-eraketa gordina	-1,7	-0,6	-0,3	2,6	-1,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-3,2	7,2	-0,7	-0,9	-1,2
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-2,5	6,2	-0,8	-1,1	-0,3
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,6	1,0	0,8	0,7	0,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua (**Lanpostuak Dedikazio osoko baliokidetzan neurtuta**) %1,9 gehitu da urte artean. Eraikuntzan ez, beste sektoreetan goraka. Zerbitzuetan gehitu da gehien enplegua urte artean, %2,3, apalago aurreko hiruhilekoan baino. Industrian, %1,2ko hazkundera, bi hiruhileko jarraian goraka; 2015eko laugarren hiruhilekoan %0,6. Lehen sektorean %+0,7; eraikuntzan %-0,3 urte artean.

Hiruhileko artean %0,3ko hazkundera; positiboan jarduera-adar guztiak eraikuntza izan ezik. Lehen sektorean eta zerbitzuetan %+0,5; industrian %+0,4. Eraikuntzan %-3,0.

Urte artean, BPG %3,6 hazi da Araban, hazkunderik handiena; Bizkaian; %3,3; Gipuzkoan %3,1. Hiruhileko artean, Araban %0,9; Bizkaian %0,8; Gipuzkoan %0,7.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhileroko kontuen gainerako prentsa-ohar gehiago (HKE)

Euskal AEko hiruhileroko kontuen gainerako datu-bankua (HKE)